

Badaiotzek laugarren egin eban Munduko Sokatira Txapelketan

10. orrialdea

Hezkuntza Saileko Hezkidetzaren Plana Dima eta Lemoako eskoletan

Dimako Ugarana eta Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak Hezkuntza Sailak abian ipini dauan Hezkidetzaren Planeari hartuko dabe parte. Hori dala eta, formazinoa emongo jakie irakasleai eta alkarlana bultzatuko dabe guraso eta gizarteko eragileakaz. 13. orrialdea



AKKB Eguna ospatuko dabe Areatzan martiaren 15ean

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

203

2014ko martiaren 4a
hamabostekaria
www.begitu.org

Aste bi ekitaldiz beteta Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan

Andren egoeraren gaineko berbaldiak, pelikulak, erakusketak eta tailerrak, hilaren 6an hasi eta 13ra arte luzatuko dira.

Arratiako andrak haurdunaldia borondatez eteteko eskubi-dea hartuko dabe berbaigai Zeanuriri eta Zeberiori. Zeberion, Onintza Enbeita bertsolari eta diputadua egongo da hilaren 6an.

Aniztasunaren aldeko muralak, komikiak, txapa tailerrak, pala partiduak, herri kirolak, afariak eta mendi martxeak osotuten dabe martiaren 8ko egitaraua. Ahaztu barik, martia-

ren 8an, eguerdiko 13:00etan egingo dan Igorreko Kultur Etxe pareko konzentrazinoa.

Atzenengo urteotan andrak etxera bueltetako eraso gogorra sufriduten dabela salatuten dau Mobimentu Feministak. "Helburu hori daukie, haurdunaldia eteteko legearen erreformeak, zerbitzu publikoen murrizketak eta abar".

7. orrialdea

MAR
TI
AK



BEDIA

Bedia bizimodua eta ohiturak

Herri ondarea jasoten dauan Bedia bizimodua eta ohiturak liburua orain lau urte hasi ziran egiten eta igazko Euskera Egunean aurkeztu zan. Arrakasta handia izan dau lan honek, bertan herri-tarren antxinako argazkiak, herriko personajeak eta beste sasoi bateko bizimodua jasoten da. Igone Etxebarria Bediako zinegotzia da egileetako bat. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA

Aurrekontuak bozkatu dabez Igorren, Lemoan eta Zeanuriri

Igorreko kontuak adostasun handia lortu eben eta aurrera atera ziran Bildu eta EAJ-PNVren aldeko botoakaz. Ez zan gauza bera gertatu ez Zeanuriri ez Lemoan. Zeanuriri, onartu ziran udal kontuak agintean dauan EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta Bilduren kontrakoakaz. Lemoan, barriz, ez ziran Bilduk aurkeztutako kontuak onartu, EAJ-PNVk eta PSEK kontrako botoak emon zituelako. 5. eta 6. orrialdeak

ARRATIA

Frackinga debekatzea eskatzeko sinadura bilketea hasiko da

Erkidegoan frackinga debekatzea helburu daukan Fracking Ez Plataformen Herri Ekimen Legegilea aurrera aterateko sinadura bilketea hasiko da hile honetan. Martiaren 5ean Igorreko Kultur Etxean batzarra egingo da frackingaren kontrako mobimentua bultzatzeko eta indartzeko. 6. orrialdea

umeen moda

0-16

erdu eta ikusi!

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

IGTIE

ANDRAK ETA ELIKADUREA: BIZITZA ETA ETORKIZUNERAKO OINARRIAK (I)

Betidanik, andrea eta nekazari-tzea, elikadura eta lurra alkarre-gaz joan dira. Ez dago urrinegi begiratu beharrik jaubetzeko andrak nahitazeko papela jokatzen dabela elikaduran.

Geure amamak ekarri daiegeuz gogora gure amesetan... edo osteratxo bat egin arrasti baten parketik... azoka batera hurreratu... edo etxe batzuetako sukaldeetara begiratu besterik barik...

Begi bistako gauzea da! Elikadurearen ardura androk dauka; eta ez konsumitzaile legez bakarrik, baita, ekoizle legez be.

Munduko biztanleriaren % 60a nekazaritza dabil eta gehiengo andrak gara.

Janarien eta biziaren produkzio, transformazio eta konsumo katean protagonista ukaezinak gara eta, ondorioz, lurrageaz, baliabide naturalakaz, produkzio eta konsumo ereduagaz lotuta dagoan elikadura kateagaz zerikusia daukien ebatziak harzteako orduan be protagonistak izan behar dogu. Beraz, lurrageaz, plangintzagaz eta eskubi-deakaz, nekazaritzaaren arloan eta gainerako arloetan zerikusia daukien ebatzi politikoetan eta antolamentuan be protagonista eta partaide izan behar dogu.

Zenbat aldiz esan deuskue: "janariagaz ezin da olgetan ibili?". Baina zoritxarrez, gaur janaria-

gaz olgetan dabiz...

Lurrak, urak eta janariak kutsatzen ditue; beraz, geu pozoitzen dabiz. Baliabide naturalak (ura, lurra, haziak, landareak...) pribatizatu egiten ditue, eta baserrietatik exodoa eta desantolamentu sozial, ekonomiko eta politikoak sorrarazten ditue, eta ekintza horreen ondorioak gehien sufriduten doguzanak androk gara.

Elikadurearen gaineko eskandaluak gertatzen dira egunero, azpiegitura handiak gure lurra eta gure biziera suntsitzen ditue, mesedegarria dala guretzat aldarrikatuz, baina beti neoliberalismo ekonomikoaren eta, beraz, mundua gobernau gura dabenen gune ekonomiko nagusien tranpolin legez jokatuta.

Batzuek elikadura-segurtasunari buruz berba egiten daben



bitartean... (ibaiak zarata egiten badau, ura daroalako da...) guk androk, subiranoak, feministak, ekologistak, solidarioak, mundua-

gazko konzienteak, gure eskubi-deak errebindiketetan doguz.

Elikadura subironatuna errebindiketetan dogu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Martiaren 3tik 9ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 10etik 16ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 17tik 23ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Erabaki ala izan

Politikaz berba egiten egon ginan lehengo egunean kuadrilan. Ez da euskaldunon artean ohikoa, baina erabakiteko eskubidearen alde Gure Esku Dago ekimenetan parte hartzeako gogotsu egoan lagun batek atera eban gaia, bero-bero egoalako. Berehala zapuztu eban beste lagun batek haren zirrea: "Erabakiteko eskubidea ez da existitzen". Eta kristoren erretolikea bota euskun erdi haserre: "autodeterminazio" eskubidea dala Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean (GENG) jasota dagoan antzeko eskubide bakarra eta herriak/nazinoak determinautakoa independentzia izan daitekela, baina baita beste aginte modu batzuk be (federazioa, autonomia... eta asimilazioa be bai).

Giza katearen ilusiotik asimilazioaren hautura pasau ginan zast batean; euskaldun izatetik borondatez espainiar izatera, alegia. Ezjakintasunak eraginda, isilik egon nintzan, eta gerora, hariari tiraka ibili naz. Argi daukat eskubideak Nazioarteko Zuzenbidean jasota egoteak ez dauala esan gura beti eta edonon beteten diranik (lan egiteko eskubidea be jasota dago GENGn, eta begira non gagozan!), ezta interpretazio desbardinak eta hutsunerik ez dagozanik be. Izan be, *the right to self-determination*

horrek talka egiten dau estaduaren lurralde-osotasunaren aldeko printzipioagaz, eta, orduan, "autodeterminazio eskubidea" kolonien kasuan edo estaduagaz ados jarri ezker bano ezin ei da lortu... eta, jakina, gehienetan, adostasun hori ez da erdiesten. Ez zarie ohartu nazino/herri gehiago dagoala munduan estaduak bano? Begi bistakoa da ez dagoala araturik, nazinoen nahiaeren arabera, estaduen mugak zelan aldatu behar diran.

Eta, orduan, zelan da posible Kosovo independente izatea? Han, ez zan albaniarren eta serbiarren artean adostasunik egon; independentzia aldarrikapen unilaterala izan zan. Holangorik Nazionarteko Zuzenbidean jasota ez dagoan arren, haren kontrakoa be ez da, antza. Dudarik ez espainiar araudia urratuko leukela (izan be, Espainia da Kosovo estadu gisa onartzen ez daben estaduetako bat). Baina forma aldetik dagozan zalantzak edukien bidez gaintitu daitezke; batzuek onartu ez arren, Kosovo hor dago. Beraz, emon deiogun edukia, formaz harago: independente gisa autodeterminautako herriak/nazinoak estaduaren ezaugarriak eta egiturak garatuak baditu, zelan ez da burujabe izango?

Eta dudarik ez daukat Euskal Herrian herria/nazinoa badagoala, Nazioarteko Zuzenbidean herri konzeptuaren definizio bateraturik ez badago be. Argi dago formai eta arauai kasu egin behar jakiera, baina arauak sortu eta eraldatu egiten dira edukien eta ekitzen ondoren.

AINARA ARTETXE

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begituk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Olgau-jokatu



Ondo pasau edo dibertidu gura dau esan olgau/olga/olga/olga berbeak (ólgau, agoskatuta), behar egin berbearen justu aurkakoa. Lehia atsegina edo dibertigarria egiten dogunean erabilten da. Gazteen artean jolastu entzuten da gehiago, behar bada euskera batuaren eraginagaitik. Halanda be partiduetan, probatan, kartetan eta beste joko askotan dirua, puntuak edo beste ezer galtzeako arriskua egon ezker jokatu (yokátu, agoskatuta) erabili behar da, eta ez olgau.

ERETXIA

Martiak 8

2014an andren eta gizonen arteko soldata arraila hazi egin da, % 22,9koa izate arte. Harritu egiten zaitu? Gu ez. Larritu? Ez, ohituta gagoz. Bardin deutso hamaika titulu izan, euskerazko laugarren perfila lortu edo proiektu sinets interesgarietan bekadun moduan parte hartu. Gain-formazioa izanda be, unibersoko misterioaren baten ondorioz edo, androk, oro har, gizonak baino askoz lan prekarioagoak lortzean doguzala ikusten dogu, noiz-behinkakoak, murriztuak.

Merkadu laboralak, gainera, ez gaitu maite. Baliabideak geroz eta urriagoak diran honetan, onurak bere horretan mantentzen ahal izateko, langileak eta euren eskubideak soberan ditu. Beraz, kapitalismoak euste garai gutietan egin dauan moduan, patriarkaduen laguntza jaso dau andrak kanporatzeko. Gertatu zan, besteak beste, Ingalaterrako industrializazio prozesuan, edota Estatu Batuetan II. Mundu Gerraren ostean. Estaduak, lanmerkaduen menpe, bere mezu artilleria prestatu dau.

Aspalditik datoz andrak etxekotu egin behar dogula, ama izan behar dogula, dinoen mezuak. Eleiza, zientzia eta estaduaren diskursoak bat egin dabe xede horretan. Horregaitik, amatasun mistikearen diskursoak asko indartu dira gurean. Abortatzeko eskubidea bermatzen dauan legea aldatu guran dabiz, eta lanharremanen erreforma barriak andren kanporaketak (batez be, haurdun dagozanak) errezten ditu. Ez da kasualidadea.

Gure jentarte ereduak, gainera, sekulako garrantzia emoten deutso merkaduko lanari, eta, aldiz, apenas ipinten deutso arretarik jentartearen ongizate eta sostengurako ezinbestekoak diran bestelako lanari: hala nola, etxeko eta zaintza lanak. Ordu pila eskeiniko deusagu soldatapeko lanari, edota etenbako formazioari; gi-

IDOIA LEGARRETA SOLATXI ETA MATXALEN LEGARRETA IZA

Parekidetasun Eragilea eta Euskal Herriko Unibersidadeko irakaslea hurrengo hurrengo. Genero Parekidetasunerako Lemoako Lehenengo Planeko Ikerketa Taldea

txi ordea, geure buruak zaintzeari, eta, oindino gitxiago, besteen zaintzari. Eta hori holan da, gehienetan, gure oinarritzko beharri-zanak beteko dituan norbait egon badagoalako gure ondoan: ama, ahizta, amama, lagun bat, edo duina ez dan soldata baten truke lan egiten dauan papelik bako andrea... Sekulako baimen soziala dago merkaduko lanari (edota militantzari, zergaitik ez onartu) dana eskeintzeko.

Hori da gure lan eta jentarte eredu. Horretan gura dogu bardintasuna? Guk geuk, egia esan, ez. Ez, natura baliabideen eta personeren zapalkuntzan oinarritzen dan eredu horretan. Ez, diru-etekinak personeren beharrian eta desioen gainetik jartzen dituan eredu horretan.

Zertara bideratuko doguz orduan gure esfortzuak? Desbardintasunak eragiten dituan egungo eredu andra eta gizonen arteko parekidetzea lortzera edo, aldiz, ekididean oinarritutako bestelako ekonomia eta jentarte antolaketak sortzera?

Andren eta gizonen arteko baliabideen eta pribilegioen arraila handituz doa, eta oindino gehiago handituko da jentarte antolaketa eredu aldatzen ez badogu.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkainak Batz gurea

MONDRAGON

LUMATUTEN



MAIKEL GOMEZ

Neurriak

Zelan leiteke horren gauza txikerrak gure bizitzetan horrenbesteko eragina izatea? Zelan leiteke ikusi ahal izateko mikroskopioa behar dan gauza batek, gure bizitzan eregitako etxebizitzaren oinarriak bat-batean, ezelangorik aurreabisu barik botatea? Zelan leiteke horren gauza txikerrak horren tsunami handia sortzea? Itau asko eta erantzun gitxi. Atzenaldian txikitasunak emoten deusta arreta eta ez gauza onerako alegia. Orain dala hilabete bi eskas Marina hil zala.

Marinak hamar urte lehenago bere etxeko atea zabaltu eustazan Birmingham-en. Ni unibersidadeko ikasketak amaitu barritan ingelesa ikasteko asmoagaz joan nintzan bertara eta Marinak eta bere familiak euren etxeko atea zabaltu eustezan.

Gauza txikerrak egiten eben Marina berezi. Bere irribarre goxoak, bere abots alaiak...

Holan, bat-batean konturatu zara txikitasunak berez

badaukela bere txikitasun horretan handitasun izakerea, onerako zein txarrerako.

Gauza txikerretan emozino positibo asko dagozalako: "bersarkada baten", "maite zaitut baten", "lagun batek laguntzen zaituanean", "alkarrenganako solidaridadean", "abesti baten", "gustuko pelikula baten", "liburu baten irakurketan".

Minbiziak, milimetroak dituen tumore horreek eragin handia daukie personengan. Baina personok geure txikitasunean, geure umiltasunean be gai gara tsunami positiboak sortzeko gizar-tean. Azken horren adibide garbia dogu, orain dala gitxi joan jakun Mandela.

Minbiziak hor iraungo dau baina personen oztopoak gaintitze-ko senak be bai. Marina zagozan lekuan zagozala mosu handi bat!

ZERTZEAN



PELLO ARTABE

"EN
MIMANDO
YO"

BEGI TXINDORRA

Persona eta personaje asko dagoz norbanako bakotxean eta Aratusteetan ostonduta daukaguzan horreetako batzuei kuku bat egiten ixten deutsegu moztarroaren bitartez. Garan edo izan gura dogun beste gu horreei, hain zuzen be.

Holan, neska zintzoa, sorgin janzten da; gizona, andra; aberatsa eskale eta behar barik dagoanak beharreko erropak janzten ditu.

Alderantziz be bai. Sorgina kantsauta dago gizarte honetan baztertuta biziten eta andra zintzoaren erropak janzten ditu; andrak gizonenak eta beharrik ez daukienak munduko aberatsenen erropa sasidotoreak.

Izan ala ez izan. Eta izan eta ez izan batera. Horixe da jokoa.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbako 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

Aita Juan Jose, agur laguna!

Iban Gortazar

Ixil-ixilik joan jaku, bakean. Bizitzan bere ibilkeran eukan elegantzia beragaz, trankil, adeitsu, danok agurtuz, pausu txiki baina sendoz.

Aita Juan Josek lauogeit urteetan emoneko irakaspenak Eleizatik harago doaz, eta bere lana be esparru horretatik kanpo egin dau sakon eta luze: herrietako dinamiketan parte hartuz, talde desbardinetan inplikauz...

Gipuzkoako fede handidun familia baten jaioa, sinesmena, ordena eta bizimodua partekatu eban Jose Mari, Eugenio eta Perikogaz. Urteetan Areatzagane azpian, gaur egun Hotela dagoan lekuan, Sakramentinoak izenez ezagutu zan etxea herritarrai zabaldu eutsen, eta handik hainbat lan zuzendu ebazan, Caritas zala, laguntza espirituala zala, jardunaldiak zirala...

Parroko lanak eta Arratiako Koruko zuzendaritza partekatu ebazan, bide emonaz fedez gain izan eban beste pasiora, kantua eta musika. Hamarkadak emon ebazan Koruko zuzendaritza eta oraintsurarte Santa Ageda egunez bajartzen zan Bilbora koplak abestera.

Euskal kulturearen defendatzaile eta babesle, arratierazko berba eta esamoldeak ikertzea atsegin eban. Meditazio eta Zen filosofia be sano hurbilak jakozan eta



bere bidez hainbat ikastaro antolatu ziran.

Biajeetan aurkitzen eban Aita Juan Josek berebiziko plazerra, eta gogo hori norbera asetuteko ez eze, gainontzekoai hurbilduteko be ahalegin handiak egin ebazan, eta holan hasi ziran erromesaldiak, Lourdesera, Lurralde Santuetara... Bidaide izan eban bilaroztar batek dinoskunez, "ofizio eta ekitaldi guztietara joan gura izatea eta alaitasuna ziran bere makuluak".

Orain, barriz, Biaje Handia egiteko lagun izango dau alakoan, bere irakasle kutun Pedro Julian Eymarden berbakaz agur dintsagu: "Maitasuna da bihotzaren ate bakarra".

IGORRE

Adostasun handiz onartu dira aurrekontuak

Zezeilaren 17an onartu ziran Igorreko aurrekontuak, aldeko 9 boto eta kontrako boto bategaz. Bilduk eta EAJ-PNVk babestu eban alkatezaren proposamena eta Igorre Danontzat Plataformeak aurkako botoa emon eban.

Erredakzioa

Aurrekontuok ez zirala paktu bidez adostu argitu gura dau Beinat Anzola Igorreko alkateak. Guztira 4,4 milioe euroko aurrekontuak dira eta diru horri, aurretik gelditutako 1,4 milioe gehitu behar jakoz.

Urigintzan proiektu handiak dagoz, tartean Agirre Lehendakaria, Igorreko kale nagusia,

oinezkoentzat egokitzea. 105 ingurutik hasiko dira aurreten kalea itxuraldatzen, espaloi zabalagoak eginez, lorategiak ipiniz eta abar. Lan horreetarako erremanteko dirua erabiliko da. Agirre Lehendakaria kaleko errotondea egiteko barriz, aurrekontuetan 150.000 euroko partidea dago. Dimako bidekurutzean egingo da biribilgune hau eta alkateak



Beinat Anzola eta Soraya Lizundia.

jakitera emondakoaren arabera, udala kontaktuan dago dagoeneko Foru Aldundiagaz. Honez gain urte biko partida bat onartu da, industrialdean kamioien aparkalekua egin eta ibilgailu astunak herritik ateratzeko.

Beharra eta kulturea

Herrian enplegua sustatzeko, Behar bide planerako be onartu da diru kantidade bat, erremanteko dirua erabiliz handituko dana. Herriko langabetuak informazioa, prestakuntza eta lan aukerak handituko dituen ekintzak aurrera eramateko 35.000 euro adostu dira. Kultura eta kirol taldeak eta jai batzordeak urtero emoten jakiezan diru laguntza kopuruak mantentzen dirala dinoe udaletik.

Diru partida barri bi be badagoz. Bata, Diputazinoko diru laguntzak jasoteko aukerarik ez dabenai lagunduteko fondoa sortzeako, 18.000 euro, hain zuzen be. Eta bestea, memoriaren berreskurapenerako. Horretarako, 21.000 euro dagoz.

Bardintasuna

Bardintasunerako, barriz, 10.000 euro dagoz, igazko diru kopuru bardina, baina 2012an baino gixiago. "2012an burukatu genduan teknikaria ipinteko, horregaitik hasierako partidea handiagoa zan, ez genduan lortu. 2013an Mankomunitateak kontrata eban teknikaria eta harezkeroz 10.000 eurokoa izan da partidea ekintzetarako" azaldu deutso BEGIRURI Soraya Lizundia zinegotziak. Izan be, Mankomunitateko Bardintasun teknikariagaz egiten dira hainbat behar. Tartean, "udal barruko funtzionamentua ikututen dauana".

ARRATIA

Erabakiteko eskubidearen alde "Gure Esku dago" plataformea abian herrietan

Euskal Herrian abiatu dan "Gure esku dago" ekimenagaz bat egin dabe Arratian. Plataforma honek Euskal Herriaren erabakite eskubidearen aldeko "sensibilidade guztien topagune" izan gura dau, tokian tokiko ekimenai babesa emonez eta bagilaren 8an, Durango eta Iruñea artean giza-katea egin.

Erredakzioa

Arratian, ekimen honen lehenengo aurkezpena aspalditxo egin zan, Igorreko Kultur Etxean igazko bagilaren 20an, hain zuzen be, herri ekimen hau aurkeztu eta gitxira. Aurten, bagila hurreratu ahala, beste herri batzuetan be hasi dira aurkezpenak eta ekimenari lotzeako ekintzak egiten,

Areatzan kasurako. Plataforma zezeilaren 12an sortu zan eta 23an ekitalditxo bat egin eban herriko plazan. Martiaren 9an argazki bat egiteko asmoa daukie eta 23an aurkezpen zabala. Jentea oso interesatuta dagoala dinoe plataformatik.

Lemoan aurkezpena eginda, hasita dagoz giza-kateari begira metroak saltzean, baita kamisetak

be. "Aurkezpen jaialdia zezeilaren 8an izan zan eta ehun personatik gora batu zan bertan: kirol eta kultur alorreko alkateetakoak, edade desbardinetao kuadrilak..." azaldu deutso BEGIRURI Ainara Fernandez Lemoakoak.

Arantzazun, autodeterminazio mahai bat martxan ipinteko deia egin eban Bilduk eta Gazte Asanbladea prest agertu da.



ARRATIA

Frackingaren kontrako sinadurak biltzean hasiko dira Arratian

Igorre Bizirik plataforma ekologistak martiaren 5ean, Igorreko Kultur Etxean izango dan batzarrera deitu dau.

Erredakzioa

Bertan, Arratian frackingaren kontrako sinadura biltztearen inguruan jardungo dabe. Batzarraren helburua Arratian frackingaren kontrako mobimentua bultzatzea, indarra emotea eta "ahaleginak lotzea" izango da.

Igazko abenduan, Fracking Ez Plataformeak Herri Ekimen Legegile (HEL) bat aurkeztu eban, frackingaren erabilera galarazoteko. HEL hau martiaren bigarren hamabostaldian hasiko da martxan eta bere "tresna nagusia" sinadura biltzea da. Izan be, 30.000 sinadura jaso behar dira lau hilabeteen, ekimena aurrera aterateko. Hori dala eta, Arratia mailako erakuntza sarea eratzeko izango da Igorreko batzarra.

Arratiako herriak Saia baime-naren barruan

Energiaren Euskal Erakunde Pu-

blikoa (EVE) SHESA enpresearen bidez ezohiko gasa bilatu nahian dabil Euskal Erkidego Autonomoan. "Gasa aterateko erabili gura daben teknika fracking izenaz ezagutzen da, eta sobera jakinak dira teknika honek ingurugiroan eragiten dituan kalte eta ondorioak (uraren kontsumo handia eta kutsadura, landa eremuak putzuz eta errepidez betetea...)" azaldu dabe Igorre Bizirik-ekoak.

Arratiako herriak gasa biltzeko Saia baimenaren barruan dagoz.



Fracking ez banderea.

ZEANURI

Inbersinorik ez dabe aurreikusten Zeanuriko aurrekontuak**Erredakzioa**

Hilaren 18an onartu ziran 2014rako udal kontuak Zeanurin. Aurreikusitako sarrera eta gastuen artean ia 400.000 euroko aldea dago. Holan, kontuak jasoten dabez 1,8 miloeko aurreikuspena diru sarrereai jagokienean eta 1,4 miloeko aurreikuspena gastuai jagokienean. Gastu eta sarreren arteko aldearen arrazoia, igaz onartutako plan finantziarioa da udal iturrien arabera. Izan be, plan honek aurrekontuetan superabita egotea eskatzen dau.

Kontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta Bilduko kontrakoakaz onartu ziran.

Inbersinorik ez aurten

Egoera finantziarioa hobetutea, funtzionamentu eta zerbitzuak bermatuz da aurrekontu honen helburua. Hori dala eta, inbersinorik ez da jaso onartutako aurrekontuan. Gastu arruntak eta zerbitzuak "mantenidu" egiten dirala azaldu dabe udal iturriak.

BEDIA

Hileon amaituko da organoaren konponketea**Erredakzioa**

Bediako parroko organoari motorea aldatu eta isilago bat jarri deusie Alejandro Turanzas eta Sergio del Campo maisu organogileak. Gainera, organoak dituan 600 tutuak soltau, garbitu eta euren lekuan ipini ditue barriro.

"Organoa, erretaula baten moduan, arte tresna bat da eta bere mantenua behar dau" dinoe konpontzaileak. Bediako organo 1958. urtekoa da, Begoñan, Bilbon Juan Dourtek egindakoa.

Tekladu bi eta pedala ditu, tutuak egurrezkoak eta eztaizuzkoak dira.

Arteako organoa konponduta
Turanzas eta Sergio del Campo maisu organo-egileak Arteako organoa be konpondu dabe. Uste baino luzeago jo dabe behar honeek, baina amaituta dagoz eta aurkezpen "ofiziala" egingo da martiaren 14an Arteako parrokan. Bertan, organo egileak egindako beharra azalduko dabe, argazkien bitartez, zelan egoan eta zelan geratu dan erakusteko. Kontzertua be egongo da.

Arteako organoa Alemanian egingo da, Weikerheim-en, eta aita Honorio karmeldarrak muntatu eban 1976. urtean. Organo honek konsola bi ditu, bata koruan eta bestea altare ostean. Bietatik jo daiteke organoa.



Arteako organoa konponduta dago.

LEMOA

Lemoak igazko kontuakaz funtzionau beharko dau 2014 urtean**Erredakzioa**

Bilduren aldeko 5 botoak ez ziran nahikoak izan 2014ko kontuak aurrera aterateko. EAJ-PNVk kon-

trako 5 boto emon eban eta PSEren boto bakarra be kontrakoak izan zan. Bilduk aurkeztutako kontuak, beraz, ez ziran aurrera atera eta igazkoak erabiliko beharko dabez aurten be.

Aurrekontuak prozesu parte hartzaile baten bidez egin zirala azpimarratu gura izan dau Bilduk. "Prozesu honetan 300 persona baino gehiagok parte hartu eban egindako auzuneetako ibilbideetan eta bilera sektorialetan". Herritarren ekarpenak jasota udal barruko lana hasi zan. "Batzorde desbardinatan proposamen zehatzak lan-

du eta batutako informazio guzti honegaz aurrekontu proposamena osotu zan. Proposamen hau udal alderdiai helarazo jakien eta honeek osoko emendakin edo emendakin partzialak aurkezteko aukerea izan eban epe baten barruan".

Kontrako botoak

EAJ-PNVk kontrako botoa emotearen arrazoia, aurrekontuak "antisozialak" dirala eta "ez dabela ekonomia bultzatzeko diru partidarik jasoten" izan zan, talde jeltzaleak Deia egunkariari egindako adierazpenen arabera. Igaz eurak egin

eta Bilduk onartutako 9 emendakinetatik, bat baino ez dala bete be salatuten dabe EAJ-PNVkoak Deian. Bete eban emendakina,

Arlonagusian bedar artifiziala ipintea izan zan.

PSEko zinegotziak be kontrako botoa emon eban.



Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-49-54

SESOREAK
basola Emaldi
FERRIN ADMINISTRAZIOA
Abokatuak
620. 57.86.04
asierbasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 631 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evokanet.net

ARRATIA

Arratiarako karta soziala sortu gura dau Arratian Lan eta Bizi Plataformek

Erredakzioa

Arratian Lan eta Bizi Plataformek, Euskal Herri mailan eragile desbardinaren alkarlanetik sortu dan Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta ekimenagaz bat egiten dau, eta ekimen hau abiapuntu hartuta Arratiako Karta Sozialaren eztabaida prozesua hasiko dau. Igazko urrietan, Arratian Lan eta Bizi Plataformek itzalaldia eratu eban eskualdean bizi dan egoera salatuteko.

Egoerari urtenbide bat emoteko, plataformek gizarte ereduaren aldaketea proposatzen dau. "Gure egungo eredu ekonomiko eta sozialak jente ugariaren eskubideen etenbako urraketea eragin izan dau. Izan be, batzuen eskubideen eta "ongizatearen" izenean, besteen oinarriko eskubideak urratu doguz etenbarik (hainbat personenak, hainbat herrirenak). Baliabideak gero eta urriagoak diran garaioan, kapitalismoak bere horretan dirau: merkaduak ezarritako beharizanak erdigunean ipintzen, eta honeek gero eta esku gitxiagotan ixten" dinoe.

Eskubide sozialaren karta egiteko, herrietan eztabaidak antolatuko dabenez gai honen inguruan: "Zer dogu oinarrian beharrezko biziteko? Zerk egiten dau gure eguneroko bizitza bizigarri?". Nolan, parte hartzean interesatuta dagozan Bedia eta Lemoakoak, hi-

laren 23an goizeko 10:00etan Lemoako Elizondoko Kulturgunean batuko dira; martiaren 29an, ordu berean, Igorre eta Arantzazukoak Igorreko Kultur Etxean. Dimakoen zatitza barriz hilaren 22an 10:00etan izango da zitea. Beste herrietan datak zehaztu barik dagoz.

Mobilizazioak

Langabeziak gora egin, enpresak zarratu eta zerbitzu publikoak murrizten diran honetan, mobilizazioak egitea ezinbestekotzat jotzen dabe Arratian Lan eta Bizikoak. "Eskualdean bizi eta behar egin" gura dabela aldarrikatzeko, hileko bigarren egunetan, martiaren 13tik hasita, mobilizazioak egingo ditue arrastiko 19:00etan, Igorreko Kultur Etxearen aurrean.



Itzalaldiko irudia.

ARRATIA

Konsulta epea amaituta, akordiorik ez Negarran

Erredakzioa

Igorreko Negarra lantegiko enpresa zuzendaritzek 30 behargin kalera- tzeke Enplegu Espedienteak aurkeztu eutsan urtailaren 29an enpresa batzordeari. Konsulta epea amaitu da, baina honek "ez dau ezertarako balio izan, enpresearen jarkerea ez da bape be aldatu eta" enpresa batzordeko CCOO sindikatuko Alvaro Ruiz en esanetan.

Zezeilaren 27an, zuzendaritzek deituta, behargin guztiak batu ziran Igorreko Kultur Etxean. Zuzendaritzek, Enplegu Espediente hau aurrera aterateko beharginen botoak

gura ebazan, "baina abstentzioa oso handia izan zan eta ezin izan zan bozka balidatu" dino Ruizek. "Guk eskatzen doguna espediente kentzea da, presino hori barik negoziatu ahal izateko".

Orain enpresa batzordea osotuten daben hiru sindikatuak, (CCOO, ELA eta LAB) holan adostu ezker, mobilizazioak egiteko proposamenak eroango deutseez baharginai hurrengo asanbladan.

Incoesak, beharginak kalera- tzeke espedienteak aurkeztu dau

Incoesak be beharginak kalera- tzeke espedienteak aurkeztu dau. Espediente honen konsulta epea hilaren 10ean amaituko da. Bitartean beharginak euren mobilizazioak jarraituten dabe: greban eta enpre- saren ate aurrean txandaka. "Baina enpresek beste aldera begiratuten dau. Eta gauza bera egiten dau Jaurlaritzak" salatuten dau Pedro Mendo beharginak.

ARRATIA

Aspaldiko aldarrikapenak barriro aurtengo martiaren 8an

Alberto Ruiz Gallardon ministroaren abortuaren lege aldatzeko lege-proposamena parlamentuan tramitetan dala heldu da aurten Andren Nazinoarteko Eguna.

Mobimentu feministaren aldarrikapen historiko honen inguruan ekintza ugari antolatu ditue, Arratian be, bertako andra taldeak, talde feministak eta erakundeak.

Erredakzioa

PPk ezarri gura dauan haurdu- naldia eteteke legeak zer eka- rriko dauan lege bihurtu ezker- o azalduko dau Onintza Enbeitak Zeberion emongo dauan ber- baldian hilaren 6an. Gauza bera egingo dabe hurrengo egunean Noka taldekoak Zeanuriko Kultur Etxean. Martiaren 7an, pankartak ipiniko ditue Areatzan, Igorren eta Zeanurin, andren euren bizitza- gainean ebazteko eskubidea al- darrikatuz, eta urtero lez martiaren 8an Igorren izango da konzentra- zioa eguerdiko 13:00etan.

Andren eskubideen aldarrika- pen, baina, kultura, kirol eta jai- agaz batera etorriko da. Ho- lan, Diman, "Andrak literaturan" erakusketea izango dabe ikusgai liburutegian eta Areatzan "Gaur egungo komiki femeninoa" gaia hartuta egingo dau berba Sko- lastikako Josune Muñozek hila- ren 13an. Artean eta Zeberion zinea egongo da martiaren 9an. Zeberion *Frida* filma egongo da udaletxean.

Gazteenen gustukoa izango da, duda barik, Zulaibaren txapa errebindikatiboak egiteko tailerra edo Lemoan aniztasunaren alde eskoletan egin ahal izango daben hormairudia.

Diman, nazinoarteko egun hau afari batez ospatuko dabe ber- tako andrak.

Arratiako Andren IV. Mendi Martxea

Zeanuriko Mazala taldeari tokau jako aurten karte- leko ekintzarik arrakastatsuenetako bat antola- tutea: Arratiako Andren Mendi Martxea. Aurtengoan Urrekoatxa-



ra igoko dira partaideak. Eta gero, kantupote feministea egingo dabe herritik zehar.

Beste kirol jarduerak batzuk be programatuta dagoz: herri kirolak, edo pala partiduak, hain zuzen be.

Egitaraua Martiak 6, eguna

Andrazkoen eskubideen aldeko txapa tailerra. Zulaibar Lan- bide Ikastegian Arratiako Udalen Mankomunidadeak antolatuta. 19:00etan, Onintza Enbeitaren ber- baldia abortatzeko eskubidearen aldekoa. Udaletxeko 2. solairuan.

Martiak 7, barikua

16:30ean, aniztasunaren aldeko murala Lemoan. 19:00etan, andren eskubideen gaineko berbaldea Bedian eta Abortatzeko Eskubidearen aldeko berbaldea Zeanurin. 20:00etan, andrazkoen pala par- tiduak Diman.

Martiak 8, zapatua

11:00etan, Areatza, Igorre eta

Zeanurin pankartak ipintea. Gure gorputza, gure erabakia. Arratiako andren alkarte eta talde feminist- en sareak antolatuta.

13:00etan, konzentrazioa Igorren. 19:00etan, herri kirolak andra eta neskontzat Dimako plazan. 21:30ean, andren afaria Dimako Baltzola tabernan.

Martiak 9, domekea

10:00etan, Zeanuriko plazatik Andren Mendi Martxea. Urrekoatxa.

13:00etan, kalejireka trikitalariakaz. Zeanurin.

17:30ean, andren eskubideen gaineko pelikulea. Artean.

18:30ean, zinea *Frida* udaletxeko 2. solairuan.

Martiak 12, eguaztena

18:00etan, andren alkartegin- tzearen gaineko berbaldea. Aran- tzazun.

Martiak 13, eguna

18:00etan, Josune Muñozen berbaldea, "Gaur egungo komiki femeninoa". Areatzan.



IGONE ETXEBARRIA

Gogor egiten eben behar umeak pasa dan mendeko erdialdean

Herriko danak ezagutzen dabe bertan agertzen dan baten bat eta *Bedia bizimodua eta ohiturak* liburuak arrakasta handia izan dau. Liburuak orain dala hiru bat urte hasi ziran egiten Euskera Planaren barruan, 70-80 urte inguruko herritarrai gitxienez ordu biko alkarrizketak eginez. Grabau eta hainbat zati interneten ipini zituan egile taldeak, gero liburuak eta DVD-a egin eta Euskerearen Egunean aurkeztu eben. Herritarrek itxitako argazki pilo batez ilustrata, bediatar askok euren erretratu edo lagunena topatzen dabe bertan. Herriko jentearen historia txikia jasota dago liburu interesgarri honetan.

Egileak Ainhoa Etxazarra, Igone Etxebarria eta Akaitze Kamiruaga dira eta horreetatik bi, Ainhoa Etxazarra eta Igone Etxebarria bediatarrak. Igone Etxebarriak kontau deusku zelan egin daben liburuak eta zelangoa zan bizimodua Bedian pasa dan mendearen erdialdean.

Erredakzioa

Jasoten dan bizimodua ez da oso aspaldikoa, baina bizimodua zeharo aldatu da. Zeintzuk dira zure ustez aldaketarik handienak?

Batez be lehengo mendeko erdialdeko bizimodua dago jasota, baina hori da informanteen eda-deagaitik. Guk gaur egun 70-80 urte dituenak hartu doguz informante, gehienak gerra inguruan jaiok.

Ordurik hona gauza asko aldatu dira. Behar egiteko modua kasurako. Izan be, gaur egun etxe guztietan dagoz labadorea, argia... eta horreek gauza guztiak ez ziran egoten honeen denporan. Horrek dakarren aldaketeagaz! Gehienak baserrian bizi ziran eta sano behar gogorra egiten eben. Gerraosteko urteak gainera urte gogorrek izan ziran.

Umetan uretan iturrira joaten ziran eta errekarera erropak garbituten. Errekako ur hotzagaz. Umetatik hasten ziran etxean beharreen, lagunduten, baina gogor beharreen. Ganaduagaz mendira joan behar edo azpigarritan edo ganadua eroaten... ume-umetan argirik be ez egoanean. Basora joan argirik barik, burdiagaz eta han egun osoan egon. Behar fisiko gogorra egiten zan eta etxeko guztiak egiten eben. Hori aldaketa itzela izan da.

Sasoi haretan familia zabala izaten zan etxean, aitita-amamak, gurasoak, seme-alaba partidea, eta osaba-izeko solteroren bat

bizi izaten ziran. Etxea autonomoagoa zan eta etxeko generoagaz horniduten zan. Bilbora urtean behin edo joaten ziran, eskolara be justoan eta beharra egon ezker, eskolea galdu. Bizimodu gogorra zan.

Auzunetan egiten zan bizimodua, handik apenas urten barik, orduan.

Eta auzuneetako izakerea be aldatu egin da. Esaterako, gaur egun Ereñon bizi diranak ez dira bertakoak, etxe barriak egin dabez. Baina han, 100 bat lagun bizi ziran, lau baserrian. Bakotxean, 8 edo 10 ume.

Auzolana egin edo auzokoak hainbat gauza egiten ziran, txarria hil, bidea konpondu... Gaur egun danerako kanpora jotzen dogu. Lehen ospakizun bat baegoan, etxean egiten zan; gaisotasun bat baegoan, etxean; ona zein txarra etxean konponduten ziran gorabeherak.

Ospakizun zein hiletetan, familia batu egiten zan eta gero, ba Zeberiotik etorri behar bazan bat, ezin zan bueltau egun berean eta etxean geratu behar izaten ziran lo egiten kanpoan bizi ziranak. Jaietara be dana oinez egiten zan. Dimara sanpedroetan oinez joaten ziran Bediako gazteak.

Jenteak ez eukan kotxerik eta oinez ibili behar.

Tranbia baegoan eta trena be bai, baina jentea ez zan hainbeste mobiduten. Trenean joaten ziran batzuk Bilbora beharreen, eta mutil batzuk ikasketak egiten be joaten ziran Atxuriko Escuela de



Igone Etxebarria.

Artes y Oficios-era. Ordu bi behar izaten ziran Bediatik Bilbora.

Beste gauza bat asko aldatu dana da andra eta gizonen rola. Lehen bakotzak eukan bere arloa. Andrak etxetik kanpo beharra egin izan dabe, dana dala. Gure informante gehienak ibili dira kanpoan beharreen: etxeetan zerbitzen edo fabriketan beharreen. Bediakoak Firestonen egiten eben behar baina ezkondukoan beharra itxi behar izaten eben. Hori gaur egun ez da burutik pasau be egiten.

Ikasketak egiteko mutilak lehenetasuna eukiten eben nesken aurrean. Familian aukeratu behar izan ezker danontzako egon ezik, neskek etxerako ziran eta nesken ardura izaten zan arrea egitea, etxeko beharretarako prestetea eta etxeoandria izatea. Ha ta guzti be, hori dana normalizat hartzean zan. Ez zan traumatikoa. Gauzak eboluzionau egin dabe, gaur bestetara da eta guk beste gauza bat egiten dogu

eta hemendik hogei urtera batek daki zelan izango dan.

Bediako bizimodua eta Arratiako antzekoa izango zan.

Badagoz gauza batzuk, urten diranak entrebistak eta grabazioak egiteko orduan, orain ez diranak egiten. Ba lehen amabitxiak egiten eutseen seme-alaba besotakoai mokotza. Mokotza da hiru puntako ogia arrautzeagaz. Hori galduta dago baina orokorra zan Euskal Herrian.

Bedian gauza aparte-aparteko ez dogu topau. Ez daukat gogoa behintzat. Gauza bereziak bai, kalabazak argiagaz ipintea... gaur egun Halloween modan dago baina horreek danak inbentata dagoz lehendik be. "Kalabaza denporan", esaten euskun batek, "mutilak bildur emoten deuskuen, ipini kalabazari zuloak begiak eta moduan eta barruan kandlea dala". Horreek gauzak batuta dagoz bai Bizkaiari bai Euskal Herriari beste leku askotan.

Bediako andra batzuk Firestonen egiten eben behar ezkondu arte. Ezkondukoan kanpoko beharra itxi behar izaten eben

Liburuan agertzen diran argazkiez gainera, bertan agertzen diran herriko pertsonajeak dira interes handiena sortu dabenak. Zeintzuk dira honeek?

Ba burura etorten jata Artetxe. Artetxe hemengo semea izan zan, ingenierua, diru asko egin eban eta ongilea izan zan. Gero Bilbon bizi izan zan, ez eban familiarik euki eta bere inguruak fundazino bat egin eben. Beste fundazino batzuk be badaukaz ospitalean eta laguntasun zerbitzuetarako. Bediarako be, parrokiaren bitartez, itxi eban diru bat eta hau Artetxe hau hil zanean, hemen plazan, egin eutsien monumentu bat, panteoia modukoa.

Beste bat Don Marcelino da. Don Marcelino maisua izan zan, eskola pribadua eukan, esan daigun. Bere eskolara mutilak joaten ziran eta berak emoten ebazan gai guztiak. Esaten da oso arteza, gogorra zala, baina maisu ona be bai. Handik ondo prestauta urteten eben umeak. Mutil askok eta askok ikasi eben Don Marcelinorenean. Eta maisua izateaz gainera organistea be izan zan eta korua dirigiduten eban. koro sano ona egon ei zan. Beste herri batzuetara be joaten ei ziran kantetan.

Gero Don Jose medikua eta batzuk urteten dabe. Eta parterak be aitatu egiten dira. Auzune guztietan egoten zan parteraren bat, umeak etxean egiten ziran eta.

Joskileak, Benigna, berbarako. Benigna erakusten ibiltzen zan. Neska gehienak joaten ziran josten ikastera edo behintzat ahaleginduten ziran josten ikasten.

Liburu hau egiteko zenbat etxetako argazkiak jaso dozuez?

Ez dakizut esaten zenbat. Ni

ibiltzen naz jenteari argazkiak eskatzen. 30 bat laguneri egin deutsaguz entrebistak eta horreei be eskatu jakiez argazkiak. Batzuek itxi dabez, beste batzuek ez... Liburu egin eta gero be bai. Argazkiak batzea jarraiko lan bat da, gerora be eukiteko. Hurrengo lanetarako be eukiteko.

Jenteak kolaborau egin dau?

Danarik dago. Etxe batzuetan argazkiak dagoz eta beste batzuetan ez. Familietan igual seme-alabetako batek daukaz familia argazki gehiago eta beste batzuk gitxiago. Kasuistikea oso zabala da.

Gero batzuek ixten deusue album osoa, beste batzuek eurek egiten dabe aukeraketea... Danarik dago. Normalean jenteak ez dau eukiten problemarik ixteko.

Zein izan da liburu egiteko erabili dozen metodologia?

Hau hasi ginan egiten Euskera Planaren barruan. Helburuetako bat da herriko ondarea batu eta gizarteratzea. Herriko jente edadekoari grabazinoak egin gentsuzan. Grabazinoak bideoan egiten doguz eta galdetegi orokor bat erabailten dogu, galdetegi antzekoa danakaz. Informanteak izaten dira ahal dala, andrazkoak, gizonezkoak, baserrikoak, kalekoak, auzo guztiak erreprezentata egon daitezela... Bariedade hori bilatzen da.

Gero informazino hori hustu, ordenau eta erredakta libururako. Grabazinoak egiten dira gero bideoan eta audioan ikusi ahal izateko. Liburu egin aurretik, grabazinoen korte batzuk ipini genduzan interneten. DVDan be badagoz. Orduan, zuk liburuan ikusten dozu informazino garbikuzia eginda eta ordenauta, baina DVDan dago bakotzak informazino hori emon eban modura. Eta gainera, aldi berean,



Liburuaren azala.

Etxean edo soloan beharra baegoan, umeak eskolea galdu egiten eben

bertako euskerea entzuten da.

Etnografiako galdetegi zabala erabiltzen da. Bakotxagaz egin doguz gitxienez ordu biko grabazinoak. Danetarik berba egiten, bizimoduaren gainean, etxeko bizimodua zelan dan, bizitzan zehar, umetan, gaztaroen eta helduaroko gauzak. Gero urteko zikloko zerak be bai: karnabalak, sanjuanak, gabonak... Jazkerak zelakoak izaten ziran be kontau deuskue, ortuko gauzak, ikasketak, beharra kanpoan egin izaten dabenak zelan egiten eben. Liburuaren indizearen bertan ikusten da edukiak zeintzuk diran eta gero DVDko korteak horren arabera dagoz ordenauta.

Ondare hori dana gizarteratze-

ko egin dozue behar hau eta helburua bete egin da.

Gauza kuriosoak topetan dira, ze hain urte gitxi izanda asko aldatu dira gauzak eta gaur egun transmisino bideak eskolea eta telebisino dira eta etxeko gauza asko ez dira transmitiduten. Gauza batzuk batu doguz informanteentzat normalak eta guretzak barriak diranak, ez doguzalako ezagutu. Horregaitik dira inportanteak holango lanak. Zentzu horretan gauza polita da, eta esan lei harrera ona euki daua. Jenteak gustura hartu dau.

Ainhoa ibili zan grabazinoak egiten. Eta Akaitzek bideo montajeak eta egin ditu. Bion artean ibili gara liburu eginen.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

SOKATIREA

Badaiotz laugarren Munduko Txapelketan

Erredakzinoa

Bostehun kiloko kategorian, laugarren egin eban Ruth Linaza tiralari lemoztarraren Badaiotz Gasteizko taldeak. Txina Tai-Pei talde faboritoak irabazi eban Munduko Sokatira Txapelketa. Bigarren Gaztedi lauzkiztarrak egin eban. 540 kiloko kategorian, zazpigarren egin eban Badaiotzek

Irlandan.


Taldea barriztuta dagoanez laugarren postua ez dala emoitza txarra pentsetan dau Linazak. "Laugarren postu bat mundu mailan ez dago bape be txarto. Danak joaten dira sano ondo preparata eta indartsu. Txinagaz ezin da lehiatu eta beste guztiak be ondo preparata joaten dira" dino Lemoakoak.



Badaiotz sokatira taldea.

KICKBOXING

Aitor Ugalde Zeberioztarra Espainiako Txapelketan egongo da



Aitor Ugalde.

Erredakzinoa

Aitor Ugalde Zeberioiko kickboxing-laria Espainiako txapelketan egongo da Euskadi ordezkatzan. Euskadiko Txapelketa ez zan jokatu, Zeberioako aurkaririk ez ebalako euki eta zuzenean sailkatu zan. Txapelketa hau, apirilaren 26 eta 27an izango da Madrilan.

Denporaldi ona daroa Ugaldek. Zezeilaren 22an Errioxako txapela jantzi eban eta Espainiako txapelketarako entreneteaz gainera, garriko baltza lortzea dau helburu. Hori bagila eta garagarrilean izango da. Bitartean, Ugaoko gimnasioan, beti entrenadore izan dauan Juan Carlos Blancogaz segiduten dau entrenetan.

TXIRRINDULARITZEA



Tiritu Dima Masters taldeko lagunak.

Beterano taldea sortu dabe Diman

Erredakzinoa

Gazteak Arratiako Ziklista Elkarte (AZE) daukiela baina beteranoak lehiaketetan parte hartzeako talderik ez eukiela eretxita, Tiritu Dima Masters izenagaz talde bat sortu dabe bertan. Partaideak 30 eta 40 urte bitartekoak dira eta taldeko presidentea eta andra bakarra Naia Alzola da.

Tiritu ziklista taldea izanda be, kultur alkarte izateko asmoagaz jaio da. "Bizikletan ibiltan dan kuadrila bat gara eta bakotxak bere aldetik hartzean genduan parte lehiaketetan. Ekipo bat egiteko gogoaz geunkan eta igazko urte amaieran Federazinora joan eta papelak egin genduzan" azaldu deutso BEGITUri Jalman Bober "Jimi" partaideak. Momentuz 30

eta 40 urte bitartekoak badira be, gurako leukiela jente gehiagok izena emotea eta master40 eta master50 kategorietan parte hartu ahal izatea dino. Taldeak babeslerik ez dauka.

Ziklo-krosean, kaminoan eta txirrindularitzearen modu guztietan lehiatzen dira Dimako Tiritu taldekoak.

Emoitza onak

Lasterketetan talde moduan parte hartzean hasi ziranetik sano emoitza onak jaso dabezala dino Boberrek. Zezeilaren bigarren astegoienean, Artziniegan jokotutako Euskadiko Txapelketan taldeko Alberto Hierrok hirugarren egin eban. Hurrengo astegoienean, Laudion, lehenengo hamabosten artean, taldeko hiru sartu ziran.

San Filippo gaixotasuna daukien Bilboko 3 umeak lagunduteko prest bazagoz sartu dirua Stop Sanfilippo fundazioaren kontu korronte honetan:
Kutxabank 2095 0028
80 9113398728.

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARO

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

ZEKUTZE
ZABETZEA
Salbu Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zikutejabetza@hotmail.com

MERKA LABELA-HARATEGIA
Etxeko produktioak:
• Txerizkoak
• Otoloizkoak
• Buskantzak
• Saltritzak
• Harburgesak
Arratiako produktioak:
• Beseriko ataria
• Urtsiak
• Beseriko arraitzak
• Txarrizkoak
• Harriak
• Geroika (fruta eta barazkiak)

umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUAN
ONDASUN HIRIGAZTEN
ASIGURUELAN
Salbu Arana, 3 Tfnoa: 94 671 71 61 - Faxa: 94 671 94 61 - 48140 IGORRE

axular
kultur elkartea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOSKOLA
karneta eskuratzeko zain ordez
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozakul@eskola.net

AIZKOREA

Atutxa II. eta Mugertza II. finalera

Irati Urien

Atutxa II.a eta Mugertza II.ak garaipena lortu eben finalerdietan. Zezeilaren 23an izan zan norgehiagokea, Oñatin. Olasagasti eta Cañamares euki zituen aurkari. Golpeetara bat, abiaduran beste bat, zutunik enbor bat, bakotzak bana etzunda, batak zutunik eta besteak etzunda, eta amaituteko zortzi korte izan zan egin behar izan eben beharra.

Bikotekako Urrezko Aizkora Txapelketea bere amaierara doa. Behin finalerdietan irabazita, finalera pasau dira eta Atutxa II. eta Mugertza II.a. Finala martiaren 30ean izango da, eguerdiko 12:00etan Azpeitian. Orain ordu-arte entrenau eta entrenau egingo daua adierazo dau dimoztarrak. Larretxea eta Etxeberriaren kontra lehiatu beharko dira finalen. Aitzol Atutxa hiru bider heldu da finalera txapelketa ho-

netan, eta hiruretan irabazi egin dau. Dimoztarrak kontau dauanez gainera, hiru garaipen horreetatik bitan 30ean aurkari eukiko dauan Larretxeagaz izan zan bikote. Honen harira, "sensasizino apur bat arraroa izango dot", aitortu dau Atutxak. Mugertza II.a oster, bi bider heldu da final honetara eta bietan galdu dau. "Ia nire boladari eusten deusagun, eta ez berarenari", dino Dimako gazteak umorez.



Aitzol Atutxa.

Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deusazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

* Deitu 649 979 115 telefonora

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



GLOBAL
ACTION
PLAN

IRABAZI

Ingurumena zainduz Etxean **dirua aurreztuz**


Eman izena **dohainik** «Aktibatu +» ekimenerako **web* honetan: www.bizkaia21.net**

Sari ederrak zozkatuko dira parte hartzen duten familien artean!

* Mankomunitatearen, udalen eta entitate sustatzaileen web orrietan ere eman dezakezu izena.



ARRATIA



ZINE KLUBA

Sexu eta identitate dibergenteen gaineko zine kluba Igorren

Erredakzioa

Transexualidade, transgenero eta intersexualidadearen gaineko hiru pelikula eroango ditue oraingoan Igorreko zine klubera, sexu eta genero identitate dibergenteak izeneko saio honeetan. Martiaren 13an, 20 eta 27an, arrastiko zortziretan ikusi ahal izango dira pelikulok Lasarte Aretoan.

Hedwig and the Inch (John Cameron Mitchell, 2001), Ame-

rikako Estatu Batuetako filma izango da lehena. Hedwig-en istorioa kontetan da bertan. Hedwigek sexuz aldatzeko ebakuntzea egingo dau AEBko soldadu batez gain eta Ekialdeko Alemaniari iges egiteko. Ezkondu eta urtebetera, bere bikoteak abandonatu eta punk-rock talde bat osotuko dau: The Angry Inch taldea.

Hurrengo egunean, *Tomboy* (Celine Solamma, 2011) film

frantsesa ikusteko aukerea egongo da. Laure, 10 urteko umea, beste auzo batera joango da bere guraso eta ahizteagaz batera. Bertan lagun barriak egingo ditu eta bere burua Michael legez aurkeztuko dau. Baina, zenbat denpora ezkutatu ahal izango dau besteen aurrean, etxean Laure dala?

Zine kluba zarratuko dauan filma, Lucia Puenzo argentinarraren *XXY* (2007) izango da. Bertan, Alex-en historia kontetan da. Alex 15 urteko nerabea da. Bera jaio eta gitxira gurasoak Buenos Aires itxi eta mundutik aparte dagoan itsasbaterreko etxeko batera doaz bizitera. Gurasoen helburua alabea aske hezte da, babestuta eta zorientsu, zein bide aukeratu gura dauan ebatzi ahal izateko.

Igorreko Zine Klubeko kartela.

www.begitu.org

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

MUSIKEA

Ska-reggae gaua Lemoako Karabie Gaztetxean

Erredakzioa

Martiaren 7an, Lemoako Karabie Gaztetxean, Potato eta MG taldeak kontzertua eskeini eta hurreratzetan diran guztiak jantzan ipiniko dabez. Kontzertuok 22:00etan hasiko dira.

Potato Gasteizko talde beterranoak, 1984an sortu zanak, arrakasta handia izan eban 1980ko hamarkadan bere ska eta reggae estiloko musikeagaz. Bost disko atera eta gero, 2007an taldea desegin zan.

Materia Gris edo MG bandea barritz, Arratiakoa eta askoz barriagoa da. Igorren sortu zan 2006 urtean eta hiru disko kaleratu ditu. MG bandak be ska-reggae musikea egiten

dau eta Karabie Gaztetxean egongo dira gauari giro tropikala emoten.



MUSIKEA

III. Poxpolu Rock Diman

Irati Urien

Martiaren 15ean III. Poxpolu Rock ospatuko da Diman. Alkartasuna lagun, preso eta igeslarien aldeko jaialdia bueltan da barriro be urte bi geldirik egon ostean. Sugoï Gazte Asanbladea da aurtengo jaiaren antolatzailea.

Egun osoko egitaraua prestatu dabe Dimako gazteak. Goizeko 11:30ean umeen jolasak egongo dira plazan; 15:00etan LIBRE ekimeneko bazkaria hamar eurotan; 17:30ean gazteen arteko herri-olimpiadak; 20:30ean triki-txaranga; gaubeko 22:00etan preso eta igeslarien aldeko manifestazioa; 22:30ean kontzertuak: Nik Khaos, Governors, The Impresentables,

eta Mandoilek. Honek frontoi handian joko dabe, eta sarrerai jagokienean, bost euro aurrez eta zazpi bertan dira prezioak. Ostean, gaupasea egongo da Gaztean Dj CD, Kaset I Munipas-egaz.

Edizino honek seguru asko espektazino handia eragingo dau, tartean The Impresentables taldea egongo dalako. Badira hogei urte inguru itzelezko juergak sortuten ebazan talde honek joteari itxi eutsala, eta Poxpolu Rock egunean agertuko da David Ibarra "Houston" bere lagunakaz. Antolatzaileetako baten esanetan, nahiz eta inguruan eskeintza desbardinak egon Arratiako jentea Dimara hurreratutea espero dabe, adin guztietako publikoa gainera.

HEZKIDETZA

Hezkidetzarako formazinoa jasoko dabe Dima eta Lemoako eskoletako irakasleak

Erredakzioa

Hiru urteko Hezkidetzeta Plana ipini dau abian Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hezkidetzarako eta bertan 50 ikastetxek hartuko dabe parte. Tartean, Dimako Ugarana eta Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak. Planaren helburua "genero indarkeriari aurre hartzea eta sexismoak eragiten dauan edozein indarkeriari aurre egiten" laguntzea da.

Planak orain arte ikastetxeetan egindako hainbat lan esperientzia sistematizatu eta bultzatu gura dauz. Atzen urteotan, erakundeak ez dabela bardintasuna eta sexismoaren kontra baliabiderik ipini eta zentro bakoitzaren irakasleen sensibilitatearen arabera landuten zala gehiago ala gitxiago dinoe Lemoako irakasleak. "Plan honegaz, sakondu egiten da, badirudi barriro be garrantzia emoten jakola gaiari, irakasleentzako formazinoa eta baliabideak" ipinten ditualako.

Irakasleentzako formazinoaren garrantzia azpimarratzen dabe Diman. "Gizarteak arazo bat dauka eta gu gizartearen parte gara. Askotan kontrakoak pentsatu arren, estereotipo sexistak erabiltzen doguz. Mutil mobidua neska trankil baten ondoan ipinten dogu askotan, esaterako, neskai zaintzaren ardura emonez. Formazinoa behar dogu" dino Dimako Ugarana ikastetxeko zuzendariak.

Proiektu honen barruan dagozan ikastetxeetako irakasleak formazinoa jasoko dabe eta horretarako orduak eta kredituak be egongo dira. Hezkidetzeta arduradun bat izentau dabe ikastetxeetan eta organo gorenetan bardintasun ordezkarri bat egongo da.

Etxeokoen eta erakundeentzako inplikazioa

Plan hau zikloko ikuspegiagaz egingo dala azaldu dabe irakasleak. Materialari jagokonean, ikasleak lan egiteko unidate didaktiko batzuk dagoz, gaiaren gainean hausnartu dagien. "Gero badago beste eremu bat etxeokoen hartzean dauana. Eureka batu gara eta ikasleak eskolan landutakoa landuko dabe etxean be. Etxeokoen be ikusten dabe bardintasuna landuteko beharizana" dinoe Lemoan.

Izan be, Dimako eskolan azpimarratzen daben mo-



Dimako ikasleak Cup song ensaietan.

duan, eskolea ez da irla bat eta eskoleak, etxeokoen eta gizarteak balore desbardinak transmitidu ezker, alferrik izango da irakasleen lana. "Eskolea leku pribilegiatua da aldaketa handietarako eta honetarako be bai. Baina eskoleak bakarrik ezin dau. Erakunde eta gizarte eragileak batera egin behar dau lan. Gu Mankomunitateko bardintasun teknikariagaz be geratuko gara lan hau egiteko" azaldu deuto BEGURI Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleak buruak.



DUNBA

Lanbide hastapena Zulaibarren

Zulaibargo ikasleak

Lanbide hastapeneko lehenengo mailako ikasleak gara. Igorreko Institututik gatoz eta 16 urte daukaguz. Bigarren eta hirugarren DBH-n egon ginan eta ikasketetan zailtasunak genduzala ikusita Zulaibarrera etorri gara.

Ikasteko gogo gitxi eta motibazio falta ikusita, zerbaist praktikoa egitea pentsatu genduan. Gehienok ez etxean ez klasean ez genduan ezer egiten. Klasean ez genduan ezer egiten ez genduanoi bazter baten jartzeko esaten euskuen beste ikaskideak ez molestetako. Han pasetan genduzan orduak ezer egiten barik.

Gure moduan beste lau bost

ikasle egon ziran, eta honek dibersifikazio kurrikularreko taldean sartu ziran. Bai institutuan geratu diranak baita geuk be graduadua aterako dogu, baina Zulaibarrera etorrita, irakasgai praktikoa daukagu eta etorkizunean Erdi Maila bat egiteko aurrez prestakuntza bat jasota eukiko dogula pentsatu dogu.

Gustetan jaku egiten doguna, eskatzen euskuezan minimoak egiten doguz, irakasgaiak aprobetan doguz. Maisu-maistrakaz be gustora gagoz, erlazino ona daukagu eureka, esaten dabena egiten dogu. Klasekoak be sano ondo konpontzen gara eta gustora gagoz.

Frontoia, ping-ponga, Gorbeia-

ra urtekerak... danerik dago hemen. Ezin dogu zentrotik urten



Zulaibargo ikasleak.

AKKB

Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak urtebete egin dau

Martiaren 15ean AKKB Eguna ospatuko dabe Areatzan, alkartearen urteurrenean.

Erredakzioa

Urtean zehar egiteko hainbat kultur eta kirol ekintza proposatzen dabez AKKBkoak, opera eta eskia, tartean. Batzorde honek Lamino Mendi Kluba be sortu dau eta partaideak federatu egin daitezke bertan. Horixe egin dabe 45 lagunek eta urtean zehar gehiagok egingo dabela gauza bera uste dabe batzordekoak.

Lehen urteurrena ospatuteko bazkide jai triki-poteoagaz hasiko da, eta gero babajana izango dabe batzorde honetako bazkideak Areatzako hotelean. Arrastian frontoian pala partiduak eta fronteniseko finala ikusteko aukera izango dabe. Hileon zehar, bazkide eta babesle kanpaina egingo dabe batzordekoak, "bazkide edo babesle egin edo barritzatze". Horretarako martiaren 10 eta 11n, arrastiko sei t'erdietatik zortzi

t'erdietara udaletxeko hirugarren solairuan egongo gara" AKKBko Asier Garciak azaldukoaren arabera.

Proiektu ugari

Urtean zehar egindakoaren balorazio galdetegi bat bialdu deusez bazkideai. Galdetegi 50 lagun inguruk erantzun dabe "lanaren balorazio oso ona eginez".

Aurrera begirako proiektu asko daukiez batzordekoak. Holan, maiatzean folk hilea antolatuko dabe, kontzertu, erakusketa, berbaldi, jantza tailer eta instrumentu tailerrak martxan ipiniz. Angel Larreagaz Arratiako ondarea ezagututeko aukera be egongo da eta "Areatzari saio berezia" eskeiniko deusez. *Bookcrossing*, lutxa eta skate erakustaldiak eta umeentzako hileroko tailer bat, dira proiektuan daukiezan beste ekintza batzuk.



AKKBkoak igazko udan Areatzako plazan egin eben bazkaria.

baina hemen jatekoa erosteko makinak daukaguz, eta zezer falta bajaku nagusi bateri esaten deusez eta berak ekarten deusez Zeanuritik behar doguna.

Etxean gurasoak be gustora dagoz, tailerren egotea gustetan jaku eta ikasten barik praktikak




egiten gusturago gagoz. Notak hobeak dira eta ikusten dabe gustora gatozala Zulaibarrera. Institutura gogo barik joaten ginan, piper egiten genduan, orain aldiz klasea goaz eta lasaigo dagoz klasean gagozalako.

Gure antean ikasketak arazoak daukazuezan Zulaibarrera etortea gomendatzen deusez, Lanbide Heziketaren bideagaz ofizio bat ikastera. Hemen beharrerako prestatzen gaitue. Animo.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Txikitu. 2.- Azken letrea. Boltsiko.
3.- Arbuiozko interjekzioa. Gurasoen ume ar. 4.- Umeen berbetan ura.
Zidarra. 5.- Zeregin, egiteko. Uretan hil. 6.- Birritan, korotza. Birritan, zeozer pijiaduten danean sortzean dan hotsa. 7.- Erregalu. Emea ez dana. 8.- Astun. Bat erromatar. 9.- Senidetu.

GOITIK BEHERA

1.- Kargaketa. 2.- Azken letrea.
Kasu egin. 3.- Arsenikoa. Musika nota. Txakurra. 4.- Interesa. ...-tapa, goazen etxera. 5.- Aldats. Bederatzi erromatar. Errepetiduta, kontuz. 6.- Temosoa. Uranioa. 7.- Kaskagorri.



Topau zazpi egunkariren izenak.

A	T	C	B	E	R	T	O	K	O
S	O	L	B	A	M	E	K	A	R
T	A	M	I	A	R	A	G	R	O
E	Z	B	A	L	E	R	A	K	Y
L	E	M	E	A	G	R	O	K	A
U	L	K	A	R	T	E	S	I	N
P	P	A	S	I	R	J	A	M	E
U	A	S	R	R	O	I	Z	E	L
R	I	S	O	N	A	K	A	L	U
E	S	C	O	L	A	M	E	P	U
A	L	T	E	A	K	E	B	I	Z
E	S	A	I	D	E	I	A	N	A
D	O	R	U	A	P	E	R	A	L
O	E	L	M	U	N	D	O	A	S
T	O	R	T	U	A	Z	S	I	U

AKI MI KO

Zorrozki lo



Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Berezitu
Gluten eta lactosa bako egi eta gordinak
Bertan eginda
Murrizketa bako gogoko kapritxoak
Eskanek hartzean dira
Lohazketa Agirre Dorrea, 11
Igorre 48140 Berrito
Telefonoa: 945 137 266
Makila: 945 134 166
www.berezitu.com
berezitu@berezitu.com

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikola

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

MONTSEERRAT PETRALANDA

"Liburu elektronikoa sartu da liburutegietan, baina ez dau papelekoa ordezkatu"

Montserrat Petralanda Zeberikoak Foru Aldundiko Liburutegian, Bilbon, egiten dau behar. Argitalpen eta Jarduera Kulturalen arduraduna da bera. Zeberioztarrak beti egin dau behar Foru Liburutegian: lehenengo teknikari moduan, katalogazino eta sailkapen lanak egiten, eta gero gestinoko lanak egiten jardun eban. Momentu honetan, Argitalpen unidatea bultzatzen saiatzen dala dino.

Orain urte batzuk, beharlagun batzuk batera, *Ilustratzaileak Bizkaian* liburua kaleratu eban eta lan horretan oinarrituta artikulu sail bat idatzi dau Bizkaiko XIX. Mendeko ilustrazioaren gainean.

Erredakzioa**Artikulu sail bat idatzi dozu, zer jorratzen da artikulu horreetan?**

Hiru edo lau urte dira lagun batzuen artean liburu bat atera genduala *Ilustratzaileak Bizkaian*, (XVI-XX) izenekoa, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratuta. Nire atala, XIX. mendea zan eta hortik atera dodaz artikuluak, zatirik interesanteenak hartuta.

Honeek dira artikuluon tituluak: "Bizkaian ilustratutako edizino romantikoak", "Prensa eta estampa ilustratua", "Bizkaiko XIX. mendeko ilustrazioko artistak" eta "Bide grafikoaren hedapena".

Bizkaian publikatutako liburuak dira hor ikertzen dozezanak?

Bai. Bizkaian publikatutakoak ala Bizkaia erlazinoak daukienak, ze Bizkaian ilustrazioa apurtxo bat berandu sartu zan. Aukerake-

tako erispidea izan zan, Bizkaian bertan publikatu, edo Bizkaiko jentek, edota Bizkaiko dirua ipini zanean. Argitaratu zanean osorik argitaratu zan baina gai batzuk hartuta artikuloak egin dodaz.

Zenbat liburu dagoz Foru Liburutegi honetan? Aitatu liburu bereziren bat, balio-tsuen edo bitxia.

Ez dakit, 200.000 edo holan izango dira. Liburu, prensa eta dana kontuan hartuta. Hau da, fondo bibliografikoa eta fondo hemerografikoa.

Eskuizkribuak be badaukaguz eta Bonaparteren fondo zati bat be bai. Gauza interesanteak dagoz.

Lehen esan deustazu zure lana dala argitalpenak bultzatzea. Ze argitaratzen dozue?

Kultura arloko eta Bizkaian batez be, komertzialak ez diran argitalpenak egiten saiatuten gara.

Badagoz sano lan interesante batzuk ez dabenak topetan lekurik argitaratzeko eta hutsune hori betetzen saiatzen gara hemen.

Foru Liburutegiak, fondo bibliografikoa eta hemerografikoa batuta, 200.000 titulu inguru batzean ditu

Petralandak XIX. mendeko ilustratzaileen gaineko artikulu sail bat idatzi dau



Artea, Literatura, ez da beti en-saioa edo ikerketa lana izaten. Arlo guztietan dagoz gauza interesanteak.

Bertako idazleak babesa emoteko, euskeraz eta gaztelaniaz idazten hasten diranentzat, hor daukagu Bizkaidatz literatura saria. Lan asko aurkezten dira gaztelaniaz eta sano gitxi euskeraz eta euskerazkoa bultzatu gura dogu. Ea Arratiako idazleak animau eta euren lanak aurkezten dituen.

Zabalik dago lanak aurkezteko epea?

Zezeilaren 20an zarratu zan, eta sariak apirlean bananduko dira, Liburuaren Egunean. Baina urriari barrero zabalduko da hurrengo edizinoan.

Zenbat liburuzain dagoz liburutegi honetan?

Hemen jente nahikotxo dago beharrean: liburutegiko teknikariak, laguntzaileak... 40tik gora guztira. Izan be, bost pisu daukaz liburutegiak. Goitik behera hasita bosgarren solairuan gelak dagoz, Aretoa eta tailerrak egiteko gelak. Ekintza kulturalak hor antolatuten

dira. Laugarren solairuan ikertzaileren aretoa dago. Hirugarrenean konsulta salak eta ikasleentzakoak. Bigarrenean, hemerroteka; lehenengoan, konsulta salak eta internet gela eta behean ikasle gela eta informazioa.

Zeintzuk dira antolatuten dozezan ekintza kulturalak?

Hor bai dagoala danetarik. Idazketa tailerrak euskeraz eta gaztelaniaz egiten doguz. Komiki tailerrak, Andrak eta literatura tailerra aspalditik daukagu, literatur topaketak... apurtxo bat danetarik.

Zelan ikusten dozu liburuaren etorkizuna? Elektronikoak papelekoa ordezkatu dau? Sartu da liburu elektronikoa liburutegietan?

Liburu elektronikoa sartuta dago liburutegietan. Hemen ez hainbeste, liburutegi hau apur bat berezia dalako. Baina nik papeleko liburuari bitzta luzea ikusten deustat. Beste gauza bat dauka: ikutu ahal dozu, usaindu... Eta gainera, papelekoa eta elektronikoa biak batera bizi ahal dira.





UDABERRI JAIA

2014/04/04

**Igorreko dendetako kolezio berrien
DESFILEA Lasarte Aretoan 17:30etan**

Bertaratu ezkerro, ZOZKETA itzelak!!!

**Eta ondoren... TRIKI-POTEODA eta
SARI GEHIAGO!!!**




IGORREN EROSI

